

## **6.- JOSUNE GOMEZ SARASOLA**

Errenterian jaioa. Ezkondua dago eta 3 seme-alaba ditu.

Irakasle eskolan diplomatua da eta Pedagogian lizentziatua UPV-EHUn.

Hainbat ikastetxetan lan egin du eta gaur egun Irungo Eguzkitza Eskola Publikoko irakaslea da. Txingudi Ikastolako Guraso Eskolan parte hartzen du.

18 urterekin Errenteriako EGIN afiliatu zen. Bere zaletasunetan oso aktibo jardun du, eta Ereintza Dantza Taldeko eta Gure Ametsa Abesbatzako kide izan da.

Bere denbora librea familiarekin eta lagunekin partekatzen du baina baita irakurketan eta kirolean, batez ere, korrikan. Zinera joatea eta bidaiatzea gustatzen zaio.